



PARTE HARTZE PROZESUA

HIRIGINTZA INKLUSIBOA Errenteriako hirigune historikorako

TXOSTENA

2018ko urriak 31

PARTE HARTZE PROZESUA

HIRIGINTZA INKLUSIBOA Erreneriako hirigune historikorako

TXOSTENA

2018ko urriak 31

ERAGILEA:

Erreneriako Udala
Hirigintza

LANTALDE TEKNIKOA:

RB3 Hiri Berrikuntza Integratua

DATA:

2018ko urriak 31

AURKIBIDEA

SARRERA

PROZESUA. Metodologia eta garapena

TAILERRAK

DIAGNOSTIKO TAILERRA

Helburua

Garapena

Emaitzak

PROPOSAMENAKO TAILERRA

Helburua

Garapena

Emaitzak

AMAIERAKO ZENBAIT GOGOETA

HIRIGINTZA INKLUSIBOA Erreneriako hirigune historikorako
URBANISMO INCLUSIVO para el Casco Histórico de Erreneria

Hirigune Historikoa birgaitzeko
bulegoa
*Oficina de revitalización del Casco
Histórico*



EGUNEROKO BIZITZA
VIDA COTIANA

IRTENBIDE UNIBERTSALIK EZ
NO SOLUCIONES UNIVERSALES

HERRITARREN ANIZTASUNA
CIUDADANÍA PLURAL

HURBILTASUNA ETA KIDETZA
PROXIMIDAD Y PERTENENCIA

SEGURTASUN (GABEZIA)
(IN)SEGURIDAD

SARRERA

Genero ikuspegia azterketa eta gogoeta kategoria bat da, eta hari esker, diagnostikoak eta proiektuak aberastu egiten dira eta arreta jartzea egokia den alderdiak zabaldu. Gure udalerrien diseinuak eta antolamenduak baldintzatu egiten ditu bertako biztanleen bizitzak, eta hortaz, urbanismo eta eraikuntza mailan hartzen diren erabakiek eragin zuzena izango dute bertan bizi direnen bizitzetan.

Genero ikuspegia erabakiak hartzeko prozesuan txertatzeak eta hori erreferentziatzeko kolektiboak irekitako elkarrizketa prozesu baten bidez egiteak hiri proiektu ororen eragin gaitasunean eragina izango du, eta ondorioz, herritar guztien bizi kalitatean.

2017ko maiatzean Erreneriako hirigune historikoko behe solairuetako lokalen eta haien inguruko espazio publikoaren azterketa bat jarri zen abian. Helburua ingurunea biziberritzea izan zen, arreta berezia jarrita narriatuen zeuden eta segurtasun ezaren pertzepzioak gehien eragiten ziren guneeetan.

Urte bereko abuztuan aurkeztu zen **ERRENERIA Hirigune Historiko Irekia** mugikortasun plana. Dokumentuak, testuinguruaren azterketaz gain, adierazitako helburua lortzera bideratutako hainbat neurri biltzen zituen: arkitektonikoak, urbanistikoak, kudeaketakoak eta komunikaziokoak.

Bertan, bestalde, beheko solairuak eta inguruko espazio publikoa hobetzeko esku hartze integralak profilatuz ziren.

Lan hau, **URBANISMO INKLUSIBOA Erreneriako hirigune historikorako**, esparru horretan txertatzen da, planteaturikoa berrikusteko eta hiriguneko gizarte ehunean eta, oro har, udalerrian duen eragin gaitasuna hobetzeko.

Helburua oinarri eraginkorrak ezartzea da hirigune historikoa eta hura osatzen duten maila guztiak anitzak eta inklusiboak izan daitezen lortzeko.

Horretaz bereiz, lehenasunezko zat jotzen da arazoak zuzenean eragiten dituen eta hura ezagutzen duten kolektiboekin **elkarrizketa prozesu** bat garatzea. **Ezinbesteko abiapuntua esparru horretako hiri espazioa hobetzeko, eta hala ingurune seguru, berdintzaile eta bizikidetzazkoa eraikitzeko.**

HIRIAREN DISEINUA | GIZARTE EGITURA | DISEÑO URBANO | TEJIDO SOCIAL




RB3 Innovación Urbana Integrada
www.rb3innovacion.com
claudia@rb3innovacion.com

HIRIGINTZA INKLUSIBOA Erreneriako hirigune historikorako
URBANISMO INCLUSIVO para el Casco Histórico de Erreneria

Hirigune Historikoa birgaitzeko
bulegoa
Oficina de revitalización del Casco
Histórico



PROZESUA. Metodologia eta garapena



Prozesu parte hartzaile bakoitza berezia da, lotura zorrotza baitu joratu beharreko arazoarekin eta testuinguruaren ezaugarri fisiko eta soziokulturalekin, eta ez baitu inoiz garapen lineal bat, baizik eta gehiago ziklikoa edo atzeraelikatua. Horregatik da garrantzitsua esparru metodologikoa ezartzea, eta jarraitu beharreko etapak eta erabili beharreko teknikak zehaztea, jarraitu beharreko bidea nolabaiteko zorrotasunarekin markatzeko helburuz.

Bere GIZARTE ELKARRIZKETARAKO TRESNA METODOLOGIAKOan oinarrituta, RB3k jakintza eta gogoeta kolektiboko ibilbide bat proposatu du, haren bitartez teknikoki, ekonomikoki eta kudeaketari begira bideragarriak izango diren eta tartean diren eragile guztiek adostu dituzten irtenbideak profilatu ahal izateko.

JAKINTZA gizartean eraikitzen da. Parte hartze fasearen aurreko fase bat garatu da, helburu duena datu, jakintza eta bizipen pluralak biltzea, erreferentziako lekuaren izaerarekin eta gai eta ikuspegi espezifikoarekin bat egingo duen proposamen bat gauzatzeko.

GOGOETA kolektiboa eta egokia da. Guztion artean eraikitako eta trataturiko gai espezifikoaren berezko izango den jakintzan zentratutako elkarrizketa gogoetatsua ahalbidetuko duten teknikak erabiltzen dira.

DELIBERAZIOA gogoetatik eratorria da eta harekiko koherentea. Ezagututakoaren eta hausnartutakoaren oinarrian, balizko irtenbideak profilatzen eta alde onak eta txarrak ebaluatzen dira. Oinarri erabilgarri bat organo eskudunek etorkizunean hartu beharreko erabakiei begira. Erabakitakoa errespetatzeko eta balioan jartzeko gai diren erabakiak.

Esparru metodologiko horren oinarrian garatu dira ondorengo lan faseak.

AURRETIKO EZAGUTZA. Hirigune historikoan bizi den edo hura erabiltzen duen biztanleriaren, eta bereziki, emakumeen premia, nahi, erraztasun eta zailtasunei buruzko egiazko informazioa eduki ahal izateko aurrez eginiko lanak eta prozesuak aztertu dira, besteak beste:

- ERRETERIA Hirigune Historiko Irekia mugikortasun plana.
- Azterketa honi eragiten dion gaia joratu duten partaidetza prozesuak. (Hirigintza eta generoa Errenterian, Hirigintzako Aholkularitza Batzordean genero ikuspegi txertatzeko emakumeekin etengabeko lana eta gogoeta sakona egiteko proposamena HHiria Kolektiboa, 2012).
- Beste azterketa interesgarri batzuk.

Horretaz gain, hainbat landa bisita eta bilera egin dira tokiko administrazioarekin (Hirigintza eta Berdintasuna) bildutako datuak kontrastatze aldera.

HIRIGINTZA INKLUSIBOA Errenterian hirigune historikorako
URBANISMO INCLUSIVO para el Casco Histórico de Errenteria

Hirigune Historikoa birgaitzeko
bulegoa
Oficina de revitalización del Casco
Histórico



PROZESUA. Metodologia eta garapena

Aurretzako fase honetako emaitzen arabera prestatu da materiala, parte hartze fasearen garapen egokirako abiapuntu gisa:

- Dokumentazio informatiboa (1. ERANSKINA)
- Oinarrizko lan mapa

Hemendik aurrera, parte hartze fasea hiru funtsezko etapatan garatu da.

INFORMAZIO TAILERRA. Helburua parte hartzaileen gaikuntza eta pixkanakako ahalduntze prozesua gauzatzea da.

Horregatik eman zaie hirigintza diziplinari, genero ikuspegiko hirigintzaren oinarrizko printzipioei eta hirigune historikoko hiri inguruneari buruzko informazioa.

Horretaz gain, prozesuaren helburua eta irismena eta haren plangintza argitu dira.


Saioa itxi ondoren, parte hartzaileei hirigune historikoan ez inklusibo gisa antzematen dituzten guneei buruzko argazkiak edo informazio interesgarria bidaltzeko gonbitea egin zaie.

DIAGNOSTIKO TAILERRA. Aurreko fasean eginiko diagnostikotik eta jasotako ekarpenetatik abiatuta **hirigune historikoan ez inklusibotzat jotzen diren lekuen mapa** “marratzeari” ekin zaio, eta puntu bakoitza eragin handieneko arazoaren arabera identifikatu da.

PROPOSAMEN TAILERRA. Adosturiko pertzepzio mapa oinarri hartuta, ingurunea hobetu eta kalitate handiagoko testuinguru inklusiboago eta seguruago bihurtzeko irtenbideak aurrezari dira.

Ez bakarrik ingurune fisikoan eginiko euskarriak, baita beharrezko azterlanak eta izaera soziokulturaleko ekintzak ere.

DIAGNOSTIKO eta PROPOSAMEN tailerren garapena eta emaitzak deskribatzeari ekin zaio. Parte hartzaileekin partekaturiko aurretzako informazioa 1. ERANSKINEAN dokumentatu da.



PARTE HARTZE PROZESUA

HIRIGINTZA INKLUSIBOA Errenteriako hirigune historikorako

DIAGNOSTIKO TAILERRA

2018ko irailak 25



SARRERA

HIRIGINTZA INKLUSIBOA Erreneriako hirigune historikorako parte hartze prozesua egiteko elkarriketa espazio gisa planteatu da, **ikuspegi feministatik** ingurune espezifiko horri buruzko gogoeta egiteko.

Ikuspegi feministatik begiratzeak esan nahi du hirigintzaren oinarriko printzipioak genero ikuspegiarekin txertatuko direla hiri ingurunearen hobekuntza kolektiborako prozesuan.

Udalerriko hirigune historikoaren leheneratzea eta hobekuntza tokiko administrazioaren apustu estrategikoaren barruan biltzen da. Apustu horren baitan, hainbat azterketa global egin eta zenbait proiektu ezarri dira.

Esku artean dugun prozesua inflexio puntu gisa proposatzen da hobekuntza globalera bideraturiko ibilbide honetan. Helburua azterketa eta proiektu oro aberastea da, haiei genero ikuspegi txertatuta, bai alderdi kritiko gisa, bai abian den eta etorkizunean gauzatuko den esku hartze guztien kalitatea bultzatzea dezakeen alderdi gisa.

Liburutegiaren eraispena (Lekuonara lekualdatuz). Espazio publiko bat sortu eta tutoretzapeko pisuak eraikitzea, egungo Liburutegiaren atzealdeko goi aldearekin lotura berria eginez, baita goiko alderako beste sarbidea hobetuz ere.

Probalekuko espazio publikoa berreskuratzea. Bi proposamen daude, bata Lau Haitzetara Euskaldunon Elkartea mantenduz, eta bestea honen eraiketa aurre ikusten duena.

Oraindik zehazteko dagoen Erdiko kaleko eraikin baten jabetza lortzea, birgaitu ondoren egoitza batean bilakatzeko.

Onbide Zinema zegoen orubean Emakumearen Etxea eraikitzea eta ingurua urbanizatzea.

Txirrita parkea, parke berritzailean berroneratzea (gaiaren inguruko parte-hartze prozesu bat burutu da) eta inguruko oinezkoen loturak hobetzea.



EREMUAREKIN BAT DATORREN PLANGINTZA

RB3 Innovación Urbana Integrada
www.rb3innovacion.com
claudia@rb3innovacion.com

HIRIGINTZA INKLUSIBOA Erreneriako hirigune historikorako
URBANISMO INCLUSIVO para el Casco Histórico de Errenteria

Hirigune Historikoa birgaitzeko
bulegoa
*Oficina de revitalización del Casco
Histórico*



DIAGNOSTIKO TAILERRA. Helburua

Lehenengo tailer honen helburu espezifikoa **herritarrek hirigune historikoko espazioei buruz dituzten ezagutzak eta lehenengo gogoetak biltzea izan da, betiere genero begirada baten pean, hau da, **begirada inklusibo** batekin.**

Horretarako, honako hauek galdetu zaizkie:

- Zer espazio erabiltzen dira eta nola iristen da espazio horietara.
- Zer jarduera mota egiten dira.

Hortik abiatuta, genero ikuspegia duen hirigintzari buruzko oinarriko alderdiei buruzko gogoeta egin da, honako puntu hauek aztertuta:

- Jarduerarik ez duten fronteak eta gizarte kontrolik gabeko espazioak daude.
- Espazioaren konfigurazioak guk norbait entzutea edo ikustea edo norbaitek gu entzutea edo ikustea zailtzen du.
- Narriatutako gunek daude, zikinkeria, urbanizazio kaskarra eta abar dela eta.
- Behar besteko argiztapenik ez duten lekuak antzeman dira.
- Nolabaiteko deserosotasuna antzematen da.

Hori guztia proposaturiko ibilbide parte hartzailean jarraitzeko oinarri gisa. Prozesuaren emaitzak errealistak, bideragarriak eta premia anitzak asetzeko gai izan daitezten lortzeko egituraturiko ibilbide bat.

Zehazturiko egungo egoeratik abiatuta, helburua ingurune hori espazio seguru, bizi eta inklusibo bilakatzea da, pertsona guztiak beren bizitzak oztoporik gabe garatzeko aukera izan dezaten. Oztopo fisikoez gain, pertzepzio eta kultura oztopoez eta oztopo emozionalez ari gara.

NOLA BERTARATZEN GALA ALDE ZAHARRERA?

ZERTARAKO ETA NOIZ JOATEN GARA ALDE ZAHARRERA?

NON SENTITZEN GARA DESEROSO?



NOLA BERTARATZEN GALA ALDE ZAHARRERA?



ZERTARAKO ETA NOIZ JOATEN GARA ALDE ZAHARRERA?



NON SENTITZEN GARA DESEROSO?



DIAGNOSTIKO TAILERRA. Garapena

Prozesuaz arduratu den taldeak honako material hau prestatu du tailerrera:


- **Laneko Mapa.** Jarduera duten eta inolako aktibitatearik ez duten lokalak adierazi dira, baita parte hartzaileak orientatzeko erreferentziatzko beste edozer informazio erabilgarri ere.
- **Hiru kolorekin sailkaturiko ikonoak.** Urdina, nora joan eta nola iritsi adierazteko; berdea, zertarako joaten den adierazteko, eta gorria, antzemandako arazoak adierazteko.

Espero den emaitza lortzeko, honako hauek egin dira:

- Lan saioaren aurkezpen labur bat.
Azpimarratu da ibilbide global bat dela eta etapa bakoitzak emaitzak lortzeko inflexio puntu bat markatzen duela.
Proposaturiko dinamika eta denborak azaldu dira.
Parte hartzaileen zalantzei erantzun zaie.
- Banakako lana egin da eta parte hartzaile bakoitzak zer espazio erabiltzen dituen markatu du Laneko Mapan, baita nola iristen den hara eta zertarako joaten den ere, horretarako aurrez prestatutako ikonoak erabilia.
- Taldeka gogoeta bat gauzatzea problematikotzat eta/edo gatazkatsutzat jotzen diren espazioei buruz, ikonoen bitartez arazoaren jatorria eta izaera azalduta.

Itxiera gisa, bateratze lana egin da. Talde bakoitzak bere gogoetak azaldu ditu eta emaitzak Laneko Mapan jarri dira, denbora errealean.

LANEKO MAPA



DIAGNOSTIKO TAILERRA. Garapena



EMAITZAK. Banakako lana

Hirigune historikoa parte hartzaile guztiek modu zehatzugabeen erabiltzen duten gunea da, nahiz eta, aurrerago ikusiko dugunez, erabileraren intentsitatea aldatu egiten den eremuaren arabera, bertan egiten diren jarduerekin lotuta.

Bertara iristeko modalitateari dagokionez, parte hartzaile ia guztiak oinez joaten dira.

Bada beste garraio bide batzuk erabiltza iristen denik ere, hirigunetik urrun dauden auzoetan edo herritik kanpo bizi baitira.

Argi dago hirigune historikoa oinezkoentzako gune bat izanik, gauza bat dela nola iristen garen bertara, eta beste bat nola mugitzen garen bertatik.

Bertan egiten diren jardueren artean, nabarmentzekoak dira aisialdiko jarduerak (gizarte harremanak eta kultur jarduerak) eta erosketak. Ondoren, paseatzea dator, nahiz eta hirigune historikoa gehiago den Oiartzun ibaian barrena udalerria inguratzen duten beste paseatzeko gune luzeago batzuetara iristeko pasaleku bat.

Oso pertsona gutxi egiten dituzte zaintza lanak ingurune horretan, eta horietako gehienek bertan bizi diren adineko pertsonak zaintzeko egiten dituzte.

Azkenik, parte hartzaile gutxi joaten dira bertara zerbitzuengatik. Hala egiten dutenak udaletxera joan ohi dira.

Azpimarratu beharra dago parte hartzaileetako bat bera ere ez dela bizi hirigune historikoan.



EMAITZAK. Banakako lana

Tailerraren lehenengo zati honen emaitza interesgarriena jarduera motaren eta haiek egiten diren gune espezifikoaren arteko harremana ikustea izan da. Taldeko lanean antzemandako gatazkak eta arazoak kontzentratzen diren lekuak iradokitzen dituen agertoki bat marraztu da.

Gozamena taberna guneetan kontzentratzen da (Zumardia eta Madalen kalea), eta bertan gauzatzen dira, halaber, kultur jarduerak.

Erosketei dagokienez, parte hartzaile ia guztiek Biteri Txiki, Zumardia eta Fernandez de Landa (A etxada) artean dagoen etxada erabiltzen dute. Bertan biltzen da merkataritza jarduera nagusia.

Paseatzeko erabilitako kaleak, Zumardiaz gain, Erdiko kalea eta Goiko kalea dira, eta horien bitartez iristen da adierazitako paseoetara. Hau da, pasalekuak dira.

Adinekoen etxeko zaintza Goiko kalearen ingurunean gauzatzen da, bertan gehienbat 70 urtetik gorako pertsonak bizi baitira. Hor antzeman dira hiri irisgarritasuneko arazo nagusiak, aldapak direla eta.

Erabilera modalitateen banaketa horrek agerian jartzen ditu egun Erreterriko hirigune historikoan dauden desorekak.



HOBETU DAITEKEENA



ONA

ESKASA

EMAITZAK. Taldeko lana

Bi lantalde osatu dira eta genero ikuspegiaren alderditik gatazkatsuak diren guneak eta/edo kaleak markatu dituzte.

Arazo puntualak gain –esaterako, Santxoenea kalearen goialdean jarduerarik gabeko fronteak egotea, eta Madalen kaleko zikintasuna eta urbanizazio kaskarra–, hiri gabezia guztiak Beheko, Erdiko, Elizako eta Goiko kalean biltzen dira (B etxadia). Horrek agerian jartzen ditu, berriz ere, ingurune horretan diren desorekak.

Erdiko kalean azpimarratzekoa da jarduerarik gabeko fronteen presentzia, beheko solairuan ziren lokaletako askoren itxieraren ondorioz, eta urbanizazio kaskarra. Beste kaleetan arazo guztien multzoa kontzentratzen da.

Arrazioa da Erdiko kaleak dendaren bat duela, eta hirigune historikoa Fanderia auzoko paseoarekin lotzen duen kale bat dela; hau da, nolabaiteko erabilera intentsitatea du.

Etxadiaren gainerako zatian gune gatazkatsu espezifikoak markatu dira.

Merkatuzarren atzealdea. Gaur egun aparkaleku bat da eta muga gisa ditu Goiko kaleko etxeen euste horma eta Merkatuzarreko atzealdeko fatxada. Nolanahi ere, aintzat hartu da lekuaren balio sinbolikoa eta nortasun balioa, aurreko erabilerak gogorarazita eta espazioen kalitateak azpimarratuta.

Elizatik Elizako kalerako sarbidea. Espazio horren ezaugarri nagusia balizko ezkutalekuak sortzen dituzten zokoak eta elementuak dira. Utzikeriak eta argiztapen urriak areagotu egiten dute, oro har, deserosotasun pertzepzioa. Bertatik, arazoek kalearen lehenengo tarte osoari eragiten diote.

Goiko kalearen beheko tarte. Gune estua da, aldapan dago, jarduerarik gabeko fronteak ditu muga (eliza eta Caritasen eraikina) eta ez dago behar adina argiztatuta. Bihurgunean egoteak ikusgarritasuna mugatzen du eta deserosotasun sententzia areagotzen.

Goiko eta Elizako kaleak konektatzen dituen kalea. Jarduerarik gabeko fronteek mugatzen dute eta jende gutxi ibiltzen da.



EMAITZAK. Taldeko lana



Torrekua eraikinaren aurreko espazioa. Dituen espazio kalitateak eta eraberritzea eta eraikinean Habian lankidetzazko ekintzailtzarako gunea kokatzen dela gorabehera, espazioa problematikotzat jotzen jarraitzen dute. Eraikinaren konfigurazio itxiak ez du haren erabileraren eta kanpoaldearen artean harreman bat ezartzeko aukera ematen; izan ere, jarduerarik gabeko fronteek mugaturiko pasaleku bat da, maldan dago eta argiztapen eskasa du. Espazio horretatik atzealdera pasaleku estu bat dago, eta deserosotzat jotzen dute, mugimendu gutxiko bi gune problematiko konektatzen baititu.

Santa Klara kaletik Onbide zelakoaren espaziorako igoera. Jarduerarik gabeko fronteak dituen kalea da, maldan dago, argiztapen urria du eta nolabaiteko narriadura. Dena dela, parkearekin eta Migel de Alduntzin kaleko etxeekin konektatzen du.

Emakumeen etxea eraikitzen denean kalea hobetzea espero da, ez bailitzateke egokia halako ekipamendu batek genero ikuspegia duten hirigintzaren printzipioei erantzuten ez dien sarbidea izatea.

Beheko kalea. Jarduerarik gabeko fronteek (itxitako lokalak eta Zumardiko tabernen atzealdeak) mugaturiko kale bat da, urbanizazio eta argiztapen txarra ditu, eta narriatuta eta abandonatuta dago, eta horrek espazio publikoaren erabilera desegokiak eragiten ditu, antzemandako arazoak areagotuz. Dena dela, hirigunetik gertu dagoen kalea da, eta haren morfologiaren adierazgarri da.

Gune horiek antzeman izana hirigune historikoa nabarmen hobetzeko eta dauden desorekak ezabatzeko aukera bat da.

Hobetu beharreko puntu horiez harago, jorraturiko gaiarekin loturiko beste auzi batzuk planteatu dira.

- Eliza jarduerarik gabeko fronte garrantzitsutzat jotzen da, oso gutxi erabiltzen baita, eta ingurunearekin duen harremanetik eratorritako espazio konfigurazioak ikusgarritasunik gabeko zoko eta kalezulo asko sortzen ditu. Ekipamendu hori erlijioaz bestelako erabileratarako baliatzeko aukerari buruz gogoeta egitea proposatzen da.
- Gai gisa espezifikoki jorratu ez den arren, parte hartzaile askok komentatu dute hirigune historiko guztian ez dagoela ia **emakumeei buruzko adierazpen sinbolikorik**.

Azken bi puntu horiek hobetzeko proposamenak zehaztuko diren unean gogoeta egiteko gai gisa sartu dira.



HURRENGO URRATSA

Diagnostiko Tailerraren emaitzetatik abiatuta, **hurrengo lan saioan antzemandako arazoan inpaktua murrizten lagun dezaketen balizko ekintzak eta/edo esku hartzeak** profilatuko dira.

Emaitza horietan oinarrituta, RB3ko taldea arduratuko da Errenteriako hirigune historikoko itxitako lokalak berreskuratzeko plan bat egiteko azterketan planteaturiko hobekuntza proposamenak aztertzeaz, hobetzeko puntuak eta hori lortzeko ekintza sorta profilatzeko

GURE HIRIGUNE HISTORIKOA

EKINTZAK

ESKU HARTZEAK

facebook

RB3 Innovación Urbana Integrada

taldea@rb3innovacion.com



www.rb3innovacion.com

HIRIGINTZA INKLUSIBOA Errenteriako hirigune historikorako
URBANISMO INCLUSIVO para el Casco Histórico de Errenteria

Hirigune Historikoa birgaitzeko
bulegoa
*Oficina de revitalización del Casco
Histórico*



PARTE HARTZE PROZESUA

HIRIGINTZA INKLUSIBOA Errenteriako hirigune historikorako

PROPOSAMEN TAILERRA

2018ko urriak 09



	ERABILERA POSIBLEAK USOS POSIBLES astisau/sormen lana trabajo artesanal/creativo ekoizpena producción ekitaldiak eventos egontoki estancia
	ESKU-HARTZEAK INTERVENCIONES lokalen itxiturak cierres locales argiztapena iluminación estalki iragankorra cubierta efimera muralak murales

BEHEKO KALEA

	ERABILERA POSIBLEAK USOS POSIBLES kontsumoa consumo ekoizpena producción ekitaldiak eventos egoltza residencia
	ESKU-HARTZEAK INTERVENCIONES lokalen itxiturak cierres locales argiztapena iluminación altzariak mobiliario eraikinaren birgaitzea rehabilitación edificio

ERDIKO KALEA

	ERABILERA POSIBLEAK USOS POSIBLES artisau/sormen lana trabajo artesanal/creativo azoka-tailerrak ferias-talleres gozamen-jolasa disfrute-juego Emakumearen Etxea Casa de la Mujer
	ESKU-HARTZEAK INTERVENCIONES diseinu prozesua proceso de diseño muralak murales ideia lehiaketa concurso de ideas eraikina eraikitzea construcción edificio

TXIRRITA PARKEA | PARQUE TXIRRITA (EX ONBIDE)

PROPOSAMEN TAILERRA. Helburua

Bigarren tailer honen helburu espezifikoa **lehentasunez esku hartu beharreko guneak identifikatzea eta haiek hobetzeko proposamenak definitzea izan da.**

Esku hartzearen lehentasunari buruzko gogoeta ingurunearen birsortzea bultzatzeko motor izan daitezkeen ardatzak identifikatzeko lanean zentratu da.

Gune/ardatz horiek identifikatuta, esku hartze espezifikoak proposatu eta espazioan kokatu dira.

Parte hartzaileei lana egiten laguntzeko, ERRETERIA Hirigune Historiko Irekia lanean aurrez eginiko proposamenak azaldu zaizkie, eta espazio publikoaren kalitatea eta potentziala bultzatzera zuzenduriko hainbat erreferentzia erakutsi.

**AURREKO
PROPOSAMENAK**

	ERABILERA POSIBLEAK USOS POSIBLES artisau lana trabajo artesanal astisau erakusketa exposición artesanía ikuskizunak espectáculos		ERABILERA POSIBLEAK USOS POSIBLES artisau erakusketa exposición artesanía ikuskizunak espectáculos
	ESKU-HARTZEAK INTERVENCIONES seinaleztapena señalización altzari mobiliario autogestioa autogestión		ESKU-HARTZEAK INTERVENCIONES estalki moldakorra cubierta adaptable seinaleztapena señalización altzari mobiliario autogestioa autogestión

ELIZAKO KALEA | GOIKO KALEA

SANTA KLARA | AGIRRE LEHENDAKARIAREN PLAZA

	ERABILERA POSIBLEAK USOS POSIBLES Pop-up ventana emergente artisau erakusketa exposición artesanía ikuskizunak espectáculos		ERABILERA POSIBLEAK USOS POSIBLES astisau/sormen lana trabajo artesanal/creativo azoka-tailerrak ferias-talleres ikuskizunak espectáculos		ERABILERA POSIBLEAK USOS POSIBLES egontoki estancia ekitaldiak eventos Eraikina: definitu beharreko erabilera Edificio: uso por definir
	ESKU-HARTZEAK INTERVENCIONES jabetza eskuratzeko adquisición propiedad atontzea acondicionamiento autogestioa autogestión		ESKU-HARTZEAK INTERVENCIONES estalki iragankorra cubierta efimera kudeaketa partekatua gestión compartida seinaleztapena señalización		ESKU-HARTZEAK INTERVENCIONES berroneraketa regeneración birgaitzea rehabilitación erabilera aldaketa cambio de uso Udala/jabeak Ayuntamiento/proprietarios

SANTA KLARA KALEA 1

JAUTARKOL PLAZA

PROBALEKU | PROBADERO - GOIKO KALEA 1 - 4

PROPOSAMEN TAILERRA. Garapena

Prozesuaz arduratu den taldeak honako material hau prestatu du tailerrerako:

- **Laneko Mapa.** Lehenengo tailerraren emaitza gisa osaturiko pertzepzio mapa euskarri zurrunean muntatu da esku hartze proposamenak kokatzeko oinarri erabilgarri bat izateko.
- **Aukera kartak.** Proposaturiko erreferentzien proiektuen irudiak kartoi zati batean itsatsi dira eta hala pertzepzio mapa jartzeko karta erabilgarri batzuk osatu dira.
- **Karta zuriak.** Aukera kartetan adierazi ez diren ondorengo ekarpenak jasotzeko.

Kartak mapei lotu zaizkie egurrezko makiltxo batzuk erabilita.

Espero den emaitza lortzeko, honako hauek egin dira:

- Lan saioaren aurkezpen labur bat egin da.
Aurreko saioko emaitzak gogoratu dira, eta aurretiaz zeuden proposamenak eta proposaturiko erreferentziako proiektuak azaldu dira.
Dinamika eta dagozkion denborak azaldu dira.
Parte hartzaileen zalantzei erantzun zaie.
- Gogoeta kolektibo bat egin da lehenetasunez esku hartu beharreko eremuei buruz, berroneratzeko prozesu global bat bultzatzeko izan dezaketen gaitasunagatik, baita haiek hobetzeko abian jar daitezkeen proiektuei buruz ere. Hau da, egungo narriadura maila murrizteko eta haiek kolektibo guztiei zuzenduriko kalitatezko gune bihurtzeko.

AUKERA KARTAK



EMAITZAK

Lehentasunezko bi ardatz identifikatu dira.

Bata **PUBLIKO** gisa definitu da, berroneratzea eta proposaturiko esku hartzeak udalerriko herritar guztiei zuzenduta baitaude, eta onura kolektibo zabala baitakarte.

Beste bat **HURBILTASUNEZKO** gisa definitu da, egora bereziki txarrean den ingurune bat hobetzera zuzendua, bertan bizi diren biztanleen onerako (egoera zaugarrian diren pertsonak dira, bereziki adinekoak).

Ardatz PUBLIKOAK Erdiko kalea zeharkatzen du eta Txirrita parkearekin lotzen da, hain zuzen Emakumeen Etxea eraikitzen ari den gunerekin.

HURBILTASUNEKO ardatza Goiko kalean eta Jautarkol plazan zentratzen da, “Asto Toki” (Merkatuzarren atzealdea) eta Elizako kalearekin lotuta.

Bi ardatzak planteaturiko esku hartzeak abian jartzeko eta gauzatzeko epeen arabera ere ezaugarritu dira.

- Ardatz PUBLIKOA, epe laburra
- HURBILTASUNEKO ardatza, epe ertaina

Ardatz bakoitzeko hobekuntza proposamen espezifikoek gain, esku hartze bakoitzaren inpaktu gaitasunean eragina izan dezaketen hainbat esku hartze edo ekintza orokor ere definitu dira.

Bi kasuetan, helburua “bisitatzeko arrazoi” gisa definitu dena sortzea da; alegia, pertsonak leku horietara erakarriko dituzten espazio eta edukiak sortzea, hala “nahitaezko” pasabide gisa bakarrik erabiltzeari utz diezaioten, eta haietaz gozatzeko edo haien bitartez ikasteko/gogoratzeko aukera izan dezaten.



EMAITZAK. Ardatz PUBLIKOA

Erdiko kalearen biziberritzea sustatzeko lehenengo urrats gisa **hutsik dauden lokalak berraktibatze** programa bat abiaraztea jo da egokientzat. Lokalak alderdik alderakoak direnez, berraktibatze horrek Beheko kaleari ere eragingo lioke; abandonu eta narriadura maila handia duen kale bat.

ERRETERIA, Hirigune Historiko Irekia azterketaren esparruan landutako Mugikortasun Planean balizko hiru kudeaketa eredu definitu ziren berraktibatze prozesu hori nolabaiteko eraginkortasunez eta inpaktu maila jakin batekin gauzatu ahal izateko. Beraz, helburua informazio hori gurutzatzea eta ingurune espezifiko horrentzat jarduteko modu eraginkorra definitzea da.

Berraktibatze prozesuak bere denbora beharko duenez, eta pixkanaka ezarriko denez, hiri kalitatea hobetzeko neurri iragankor bat proposatzen da:

- Gaur egun jarduerarik ez duten lokaletako **erakusleihoak aldatzea** eta haien itxiturak birpentsatzea. Bi aukera hauek daude:

Dauden itxituretan esku hartze artistikoak egitea.

Itxitura aktiboagoengatik ordezkatzeko eta erakusleho gardenak egitea bertan artelanak edo hiriguneko edo udalerrri osoko beste leku batzuetan dauden denden publizitatea jartzeko.

Bi irtenbideak jo dira kanpoko espazioaren kalitatea hobetzeko erabilgarritzat, nahiz eta inbertsio desberdinak behar izan. Alderik alde doan lokal asko dagoenez, neurri horiek Beheko kalera ere zabal litezke.



EMAITZAK. Ardatz PUBLIKOA

Azkenik, egokitzat jotzen da **urbanizazioa hobetzea**. Ez horrenbeste egungo zoladura ordezkatzeari, baizik eta hobetzea, kale horien izaerari eta, oro har, hirigunearen identitateari eusteko, mugimendua eta ingurunearen kalitate urbanoari buruzko pertzepzioa hobetuta.

Ardatz nagusi hori desbideratu egiten da Erdiko kalea Txirrita parkearekin (bertan egongo da etorkizunean Emakumeen Etxea) lotzen duen Santa Klara kalearen tartean. Tarte horretarako ERRETERIA Hirigune Historiko Irekia azterketan planteaturiko esku hartze bera proposatzen da. Hau da, **mural bertikal eta horizontal bat** egitea, zeinak, fatxaden eta egungo zoladuraren kalitatea hobetzeaz gain, hiri komunikazioko mekanismo baten modura funtzionatuko baituen, Emakumeen Etxea seinaleztatuta eta harantz gidatuta, eta funtzio pedagogikoa ere edukita. Herriko emakumeekin loturiko gai batean inspira liteke, kolektibo horri buruz ingurunean dagoen irudi faltari irtenbide bat emanda.

Bertan irekiko den Emakumeen Etxeak eta Erdiko kalean egingo diren lehenengo esku hartzeek sinergia garrantzitsuak eta berroneratze eragin zabalago bat sortzea espero da.

Ardatz hori hobetzeko prozesuarekin batera, espazio publikoan beste ekintza batzuk egitea proposatu da:

- Ate irekien jardunaldiak egitea espazio publikoan aldi baterako jarduerak gauzatu eta altzari efimeroak jarrita.
- Argiztapenaren kolorea aldatzea eta/edo kaleetan musika jartzea. Egungo argiztapena zuntz bidezkoa da, beraz, ekintza horiek ez dute inbertsio handirik ez kudeaketa konplexurik eskatzen.

Azkenik, jarduerarik gabeko lokalen batean komun publikoak jartzeko aukera aztertzea proposatu da, bereziki Beheko kalean, kalearen “okerreko” erabilerari erantzun bat emateko.



EMAITZAK. HURBILTASUNENKOKO ardatza



Ardatz horrentzat ere jarduerarik gabeko lokalen berraktibatzea proposatu da, baina ikuspegi sozialago batekin, bertan bizi direnen bizi kalitatea hobetzeko aukera gisa.

Komunitatearen zerbitzurako erabilerak planteatu dira; esaterako, bizikletak edo erosketa egiteko orgatxoak edo haur kotxeak uzteko lokalak. Nolanahi ere, hurbiltasuneko komunitate zerbitzuen irismena handiagoa izan daitekeela jotzen da. Horregatik, lehen urrats gisa, **eraginpeko biztanleen premiak antzemateko azterlan** bat egitea proposatu da, betiere haien parte hartzearekin.

Bestalde, eta ingurune horretako etxebizitzaren tipologia eta bertan bizi direnen profila (adineko jendea) aintzat hartuta, dagoen **etxebizitza eskaintzaren azterketa espezifiko** bat egitea proposatu da (tipologia, tamaina, irisgarritasuna, bizigarritasuna, eta abar). Helburua adineko pertsonen etxebizitza premiei erantzutea da, tutoretzapeko etxeetan birkokatzeko eta etxebizitza horiek **aldi baterako etxebizitza** bihurtzeko aukera ebaluatzeko oinarri gisa. Hau da, pertsona gazteagoentzako eta bizitegi ikuspegitik hain egonkorak ez direnentzako etxebizitzak egitea.

Azterketa horiek denbora behar dutenez ondo egiteko, epe laburrean gauzatzeko neurri sorta bat proposatu da; esaterako, gunen horretako bizi kalitatea hobetzea.

- Kaleen mantentze lanak hobetzea hiriko irisgarritasuna errazteko.
- Dagoen urbanizazioa hobetzea joan etorriak erraztu eta istripu arriskua murrizteko.

Bertan bizi direnen premiak aztertzeke lana egiten den bitartean, bertako lokalak birmoldatzeko proiektu bat planteatzeko oinarri gisa, **behealdean itxituretan hainbat mural** egitea proposatu da. Planteaturiko gaiak erreferentzia egiten dio Errenteriako historia markatu duten –modu ez oso ikusgarrian izan bada ere– emakumeen memoria dokumentatzeari. Esku hartze horrek ez du bakarrik espazio publikoaren kalitatea hobetzea lortzen, aldiz, balio pedagogikoa ere badu eta bertan bizi ez direnak bertara joateko eta ingurunea biziberritzeko akuilua ere izan daiteke.



EMAITZAK. HURBILTASUNENKO ardatza



Prozesu hori jasateko hirigune historikoan martxan diren denden bitartez **informazio kanpainak** egiteko aukera ikusi da. Informazio liburuxkak prestatzea bezeroei emateko, hala proposaturiko esku hartze artistikoak ikusgarri egiteko. Martxan diren dendak guneko aktiboenetatik narriatuenetara jakintza transferitzeko aukera bihurtzen dira, udalerraren zati horren batasuna eta jatorrizko nortasuna berreskuratuta.

Esparru horretan, bestalde, **Ondare Jardunaldi tematikoak** egitea proposatu da. Urtero-urtero gai bat aukeratu eta bisitaldiak, hitzaldiak, kontakizunak edo ikuskizunak antolatzen dira guneko "ezezagunak" ikusarazteko eta bertako memoria fisikoa eta soziokulturala eta nortasuna berreskuratu eta balioan jartzeko aukera gisa.

"**Asto Toki**"ko guneko fisikoarentzat lekuaren nortasun femeninoa berreskuratuzera bideraturiko ekintzak eta esku hartzeak zehaztea proposatzen da. Merkatarren atzealdearen izen ezagunak baserriar emakumeen ohitura bati egiten die erreferentzia; izan ere, inguruetatik etortzen zirenean astoa bertan uzten zuten, beren produktuak deskargatu eta merkaturatu saltzeko.

Azkenik, eta oro har hitz eginda, eurtik babesteko estalki arinak jartzeko guneko zehaztea proposatzen da, horrek espazio publikoaren erabilera bultzatuko baitu, bereziki zaintza lanak egiten dituzten emakumeen artean. Guneko horietan, gainera, zaintza lanak (edoskitzea, haurrei fardela aldatzea, eta abar) erraztuko dituzten zerbitzuak jar daitezke, hutsik dauden lokalen balizko beste birgaitze eredu bat zehaztuta, bereziki merkataritza jardueretarako aukera urriak aurreikusten diren lekuetan. Dena dela, lortu nahi dena ingurune anitz eta inklusiboa izatea bada, eta ildo horretatik, erabilera tipologiak nahastea eta merkataritzako eta gizarteari begirako erabilerak uztartzea bide berrizaitzat jotzen da.

Adierazitako guztiak abian jartzeko eta ezartzeko programak eskatzen ditu, baita kudeaketa ereduak ere. Adierazi dugun bezala, horri buruzko informazio guztia ERRETERIA Hirigune Historiko Irekia azterlanean bilduta dago. Helburua premien eta aukeren sorta zabaltzea eta eredu horiek zehaztea da.

Adierazitako azterlanean proposaturiko beste neurrietako bat ERRETERIA Hirigune Historiko Irekia "marka" sortzea zen. Dokumentuan aintzat hartu beharreko zenbait gai proposatu ziren, haiek definitu eta ondoren logotipoa eta loturiko komunikazio prozesu oro diseinatzeke. Prozesu honen esparruan, genero ikuspegia eta emakumeen memoria aintzat hartu beharreko beste irizpide gisa txertatzeko aukeraz hitz egin da.



AMAIERAKO GOGOETA BATZUK

Emaitzek prozesuaren helburua behar bezala betetzen dutela jo da, eta bideragarriak direla alderdi ekonomiko, tekniko eta kudeaketakoei erreparatuta.

Kalitatea parte hartzaileen profilak baldintzatzen du. Gehienak Berdintasun Batzordekoak dira eta ibilbide aintzatetsia izan dute jorratutako gaien; hala, profil eta ikuspuntu anitzak irudikatzen dituzte. Horretaz gain, ahalduz maila sendoa dute eta horrek asko lagundu dio prozesuaren garapenari.

Emaitza horien dibulgazioak eta, bereziki, pixkanakako ezarpenak hainbat eragin izatea espero da, besteak beste, genero ikuspegiak hiria garatzeko prozesuei egin diezazkiekeen ekarpenen kontzientzia kolektiboa areagotzea. Era berean, erronka honetan biztanleriaren zati handiago baten inplikazioa lortzea espero da. Bereziki gizonena, ez baitute inolako ordezkaritzarik izan oraingoan.

Diagnostiko eta proposamen prozesu honen emaitzek bat egiten dute, neurri handi batean, ERRENTERIA Hirigune Historiko Irekia azterketan lorturikoekin. Horrek indartu egiten ditu hainbat ideia; alde batetik, genero ikuspegia eta emakumeen begirada hiri inguruneak irakurtzeko eta birpentsatzeko beharrezko ikuspegiak direla, ingurune horiek inklusibo, kalitatezko eta orekatu bihurtzea lor dezaketela, eta kolektibo osoari kalitatezko erantzunak emateko gai direla.

Bestalde, kointzidentzia hori ikusita, lehentasunezko zat jotzen da bi prozesuetako emaitzak gurutzatzea, **Ekintza Plan Integral** bat definitu arte. Planteaturiko gauzetako askok badute aurreko erantzun bat. Haiek berrikusi, osatu eta abian jartzea da orain helburua.


Lan hori lehentasunezko zat jotzen da, ez bakarrik emaitza partzial bakoitzak globala aberats dezakeelako, baizik eta jakintza arlo, ikuspegi eta sail desberdinen arteko lankidetzaren proaktibitate baten oinarriak ezarriko lituzkeelako. Eta hori, eredu berri bat definitzeko oinarria da, garaietara egokituko dena, pertsonetik, hiri nortasunarekiko eta hartzen gaituen ingurunearekiko hurbilago izango dena eta hori guztia gehiago errespetatuko duena.

Lan honetako emaitza espezifikoaren artean, proposamen eta ekintza konkretuez gain, zenbait esku hartze egia eta kalitatezko izateko egokitzen diren alde aurreko azterlanak proposatzen dira.

AMAIERAKO GOGOETA BATZUK

Adierazitako guztiagatik, erabakitako guztia denboran zehar ezartzen joateko zenbait urrats zehaztu dira.

- Bi azterlanetako emaitzak gurutzatzea (ERRETERIA Hirigune Historiko Irekia eta HIRIGINTZA INKLUSIBOA Errenteriako hirigune historikorako) eta **Programa Koadro** bat definitzea. Proiektuak, ekintzak, kudeaketa ereduak eta abar definituko eta xehatutako kronograma batean antolatuko dituen dokumentu bat. Ekintza Plan Integrala definitzeko oinarri gisa.
- Esku hartze programak eta aurretiaz aldi berean proposaturiko azterlanak abian jartzea.
- Antzemandako aurreko azterlanen emaitzak Programa Koadroarekin gurutzatzea haiek berrikusi eta eguneratzeko.
- Azterlanen emaitzak Hirigune Historikoari buruzko GIS ingurunean sartzea.
- Informazioaren ezarpenari eta GIS ingurunera eramateari buruzko prozesuaren ebaluazioa eta jarraipena.



Eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartzaile guztiei eta tokiko administrazioari (Hirigintza eta Berdintasuna) elkarrizketa prozesuan erakutsi duten inplikazioagatik, eta haren emaitzak egia bilakatzea eta herritar guztien bizi kalitatea hobetzea espero dugu

facebook

RB3 Innovación Urbana Integrada



taldea@rb3innovacion.com

www.rb3innovacion.com



RB3 Innovación Urbana Integrada
www.rb3innovacion.com
claudia@rb3innovacion.com

HIRIGINTZA INKLUSIBOA Errenteriako hirigune historikorako
URBANISMO INCLUSIVO para el Casco Histórico de Errenteria

Hirigune Historikoa birgaitzeko
bulegoa
Oficina de revitalización del Casco
Histórico

